

«Espero dut nire hurrengo liburua lehenago argitaratu ahal izatea»



IRATI ELORRIETA
Neguko argiak
eleberraren egilea

hirulka

141. zenbakia

2018ko azaroaren 15etik 21era arte

BULKADA GAZTE-TABERNA | 4

ALGORTAKO GAZTEEN TOPALEKU IZAN GURAN

Zabaldut berri duten taberna horren helburua da izaera politikoa eta bestelako aisialdia eskaintzen duen gunea izatea.

BILBOKO BURDIN HESIA | 5

DEFENTSA-LERROAREN BALIOA AZPIMARRATZEN

Burdin Hesiaren Barrikako eta Urdulizko aztarnak garbitu eta horiek berreskuratzeari ekingo diote laster.

LAN-GATAZKA LORAMENDIN | 6

EMAKUMEAK GREBAN, TXIRO EZ BILAKATZEKO

Erandioko Loramendi zahar-egoitzako 13 garbitzaileak borrokan dabilta, «bazterkeria» gaingitu eta lanaldi osoa lortzeko.

ERANDION KIROLA ERE EUSKARAZ | 12-13

EUSKARA SUSTATUKO DUTE BOGATZEAN ERE

Lehenengo aldiz, futbolekoa ez den klub bat izango da euskararen erabilera sustatzeko ekimenean: Lutxana arraun-kluba.



Plazara, ahots moreak isilarazi ez ditzaten

Emakumeenganako eta umeenganako indarkeria salatuko du egunotan Getxoko mugimendu-feministak, hiru militante feministaren aurkako salaketakaz eta Justizia Administrazioagaz batera. Daborduko martxoaren 8ko greba antolatzen dabilta.

«Isilik geratzeari oso gar



Umeen kontrako sexu-indarkeria zigor barik gera ez dadin egiteko manifestazioak 800 pertsona batu zituen Algortan.

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izango da azaroaren 25a. Gainera, Getxoko mugimendu feministak kontuan izango du Adin Txikienganako Sexu-abusuen eta Tratu Txarren Prebentziorako Nazioarteko Eguna, azaroaren 19an. Hiru ekimen egingo dituzte egunotan.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ARGAZKIAK: HODEI TORRES • IKER RINCON • I. F. M. ►

Datorren urteko martxoaren 8an beste emakume-greba bat egiteko lanak hasita dauzka Getxoko mugimendu feministak. Aurreko ikasturteak utzitako irakaspeneztatik eta ondorioetatik landuko dute, eta datorren aste-akabuan abiatuko dituzte hainbat ildo.

HIRU PERTSONA IKERKETAPEAN. Ildoetako bat da epaiketa-bidean egon daitezkeen hiru pertsonaren kasua azaltzea. Hiru pertsona horiek hurbilekoak direla eta ikerketapean daudela jakinarazi dute Haurren Kontrako Indarkeriarik Ez! plataformak, Algortako Bilgune Feministak eta Haziak Algortako Emakume Gazte Feministen Taldeak. Ez dakite euren kontrako auzi bat zabalduko den ala ez. Zabaltu dutenez, hirurek lan publikoan egin dute pederastia eta umeenganako sexu-abusuak salatu eta mahai gainean ipintzeko. Lan horren adibide bat da joan den ekainaren 24an Algortan egin zen manifestazio jendetsua, *Haurren kontrako sexu-indarkeriaren aurrean zigorgabetasunik*

4tik 1

Lau neskatilatik batek sexu-abusuak jasaten ditu 13 urte bete aurretik, eta egoera bera bizi dute zazpi mutikotik batek, Haurren Kontrako Indarkeriarik Ez plataformaren arabera.

6 urte

Sei urte bitarteko umeen testigantzak ezin dira kontuan hartu legeen arabera, Haziak taldeak gogorarazi duenez: «Ez omen da objektiboa ezta erreala ere; legea ez dago prest eta gizartea eta epailea ere ez».

ez! goiburu pean. Hiru eragileek azaldu dutenez, Algortan aita bat epaitu eta absolbitu zuten horrelako afera batean. Elkarrekin landu zuten gaia, umea eta sendia identifikagarria egin zitekeen inolako informaziorik eman barik. Gogorra egin zitzaion kasua ezagutzea, «gureetako bat zela jakitea sinestezina zelako. Gure ezagun bat edo horrelako ezkerreko pertsona mitiko, iraultzaile eta borrokalaria edo nire lehengusu bat, edo zure anaia, edo kuadrillako guaiena... ezagunak direnean, nola egiten zaio aurre?». Euren berbetan, «isilik geratzeari oso garesti ordainduko dugu gizarte modura. Ausardia ez da beldurrik ez sentitzea, beldur izan arren erantzutea baizik».

Euren ustean, *Manadakoak* edo ezezagunak salatzea «oso erraza» da, baina arazoa hur denean ez omen da samur egiten: «Batzuentzat errazena da esatea: hori etxean konpontzen da, hori familien kontua da, gu ez gara sartuko, ez naiz posizionatuko, eta guk pentsatzen genuen hori ez dela horrela konpontzen den kontu bat. Posizionatzea eskatzen du, borroka egitea, egoera horretan zoritxarrez ume piloa dagoelako. Zenbat jende dago, oraingoa lantzen hasi garenean, gogoratu dena txikitzen jasadako erasoakaz, orain ausartu dena berbak ipintzen horri!», nabarmendu dute.

Onartzen dute «betidanik» egon den gaia dela, baina eragile horiei «lehertu egin zitzaion eskuartean». Azaldu dutenez, «erabaki genuen ezin genuela beste alde batera begiratu, ikusita gainera ume bat zegoela hor». Ume horretaz gainera, kontziente dira arazoa globala dela eta Euskal Herrian milaka neska-mutili eragiten diola, 13 urte azpikoen %80ri, Europako Kontsei-

esti ordainduko dugu»

Argazki batek egon behar zuen hemen,
baina HIRUKAren egoera larria dela eta,
ezin dugu gure lana behar bezala egin.

Hau berriro jazo ez dadin
zure laguntza behar dugu.

Egin zaitez HIRUKAlagun!



Bilgune Feministak politikariei eskatu die azaroaren 25eko ekitaldietan egoteaz gainera politika feministak egiteko.

luaren ikerketen arabera. Hala, arazo hori «beste borroka-ze-lai bat» dela ulertu eta bertara sartu ziren plataforma, Haziak, Bilgune eta beste hogeitasei bat elkarte feminista. Denek hartu zuten jarrera argi bat: «Esan genuen nori sinisten diogun: umeei, kasu horretan ere». Horrek hausturak sortu zituen eragile horietako hainbat militanteren eta euren betiko lagunaren artean. Euren ustean, «errazagoa da esatea: ez, gezurra da, esajeratzen dabiltza... Baina sinesten baduzu, zer edo zer egin behar duzu; horrelako kontu baten aurrean posizionatzeak berak eskatzen dizu lanketa bat egitea», kaleetan zein auzi-prozesuan.

Bigarren arloan, ikusi dute «justizia matxista zelango ankerra den, zelango injustua den». Justizia eredu horrek ez die balio: «Ez dago formazio feministarik epaitegietan». Zerrenda luzea egin dute «epaileek esaten dituzten astakeriakaz», *Manadako* auzia, Juana Rivasena eta beste hamaika aipatuta. Hori dela eta, azaroaren 25ean justizia kristau eta patriarkala salatuko dute. Data hori hur dagoela, Bilgune Feministak gogorazti du indarkeria ez dela soilik fisikoa edo psikikoa: «Politikariak kanpainan ipiniko dira berriro, eta eskatu beharko diegu, pasatu dugun urte beltzagaz, erakundeak morez bete ditzatela; ezin ditugu aukerak galdu politika feministak lantzeko eta aldarrikatzeko, politikarien agendetan goi-goian egon daitezen: aurrekontuan, hirigintzan... Gaur egun dena dago lotuta emakumeen kontrako indarkeriagaz: puntu beltzak, non ipintzen dituzten autobusak, non plazak, zer zaintza-eredua gura dugun, lanaren behin-behinekotasuna... Getxon, etxeko langileen mundu ikusiezina mahai gainera ekarri behar dugu». ◀

Getxoko mugimendu feministaren ekintzak

Azaroak 23, barikua

19:00
Deskontrolatua antzezlan,
Itzubaltzetako Ibar nagusien etxean,
Itzubaltzetako Emakumeen Asanbladak
antolatuta.

Azaroak 24, zapatua

13:00
Umeen kontrako indarkeriari aurre
egiten dutenei ez isiltzeko agerraldia,
Algortako Telletxe plazan.

Azaroak 25, domeka

13:00
Justizia matxista salatzen
elkarretaratzea, San Nikolas plazan.

Martxoaren 8ko
grebaren arrakasta
errepikatu gura dute
datorren urtean

Testu batek egon behar zuen hemen,
baina HIRUKAren
egoera larria dela eta,
ezin dugu gure lana
behar bezala egin.

Hau berriro jazo ez dadin
zure laguntza behar dugu.

**Egin zaitez
HIRUKAlagun!**



BULKADA TABERNA | Algortako gazteentzako topalekua

«Ezarritako ereduaren aurrean, gurea eraiki nahi dugu»

Gazteentzako erreferente izan gura duen Bulkada tabernak ateak ireki zituen joan den hilabetean. Sustatzaileen arabera, helburua da izaera politikoa eta bestelako aisialdia eskaintzen dituen gunea izatea.

IKER RINCON MORENO ▶

Hasteko, defini ezazue Bulkada gazte-taberna. Zer da? Herriko gazteriarentzako gunen berri bat da, gazteriak kudeatutakoa eta faltan sumatzen dugun gure aisialdi-ereduari erantzuten diona.

Bulkada izena jarri diozue guneari, zer dela eta? Egia esan, izen-zerrenda amaigabe bat osatu genuen hasieran, baina gazteok ordezkatzeko gintuen izen bat izan behar zuela uste genuen, indartsua, eta Bulkada deitzea erabaki genuen. Ernaik «Bulkada berrien garaia da!» dinamika martxan jarri du ikas-turte honetan, gazte antolakundearen 40. urteurrena dela eta. Dinamika horren bidez atzera begirada bat egin nahi da, baina batez ere belaunaldi berriak erakarri nahi dira. Horren harira, herrian proiektu berri hau martxan jartzera gindoazenean, izen aproposa iruditu zitzaigun, hemendik aurrera egongo diren «bulkada» berriak irudikatzeke.

Nortzuk eta zergatik erabaki zenuten mota horretako taberna bat zabaltzea Algortako erdigunean? Hausnarketa batetik etorri zen. Gazteok herrian gune gutxi genuela eta tabernaren ideia aukera ona zela ikusita, proiektua aurrera eramatea erabaki genuen. Getxoko Udalak ezarri nahi duen herri-eredu honetan gazteok, antza, lekuri ez dugunez, gure kabuz proiektu eta gune berriak sortu behar ditugula uste dugu. Hasiera

Argazki batek egon behar zuen hemen,
baina HIRUKAren egoera larria dela eta,
ezin dugu gure lana behar bezala egin.

Hau berriro jazo ez dadin
zure laguntza behar dugu.

Egin zaitez HIRUKA lagun!



Mikel Barcena dabil tabernari Bulkadan, baina beragaz batera hainbat gazte dabil lanean. OSKAR GUTIERREZ

Funtzionamendua

«Ardurak banatzen ditugu tabernaren kudeaketarako: tabernariak, komunikazioa, diruzaintza, ardura politikoa eta arlo teknikoak»

Harrera ona

«Herriko hainbat gaztek Bulkada euren gunetzat jotzen dutela ikusten dugu, eta horixe da gure helburuetako bat»

batean Ernaiko taldearen ideia izan arren, gazte-mugimenduarentzako gune bat izan behar duela uste dugu, eta bertan diharduten gazte askoren laguntza jaso dugu proiektu hau aurrera eramateko orduan.

Zelakoa izan da proiektu hori aurrera ateratzeko prozesua? Taberna baten kudeaketa inoiz egin ez dugula kontuan hartuta, hasieran traba eta zalantza askorekin tipo egin dugu. Laguntza jaso dugu arlo honetan esperientzia duen jendearengandik, eta horrek asko arindu digu lana.

Taberna soil bat baino gehiago izan gura duzue, ezta? Bai, izaera politikoa duen gunea da, eta bestelako aisialdi-eredu bat planteatzeaz gainera, sor daitezkeen proiektu, ekimen eta abarrei lekua egingo dien gunea da.

Eta zer egingo duzue hori dena lortzeko? Agenda politiko propioa izateaz gainera, Algortako eragileei gunea erabiltzeko gonbidapena egin zaie, euren propaganda, bideoak, tailerrak, ekimenak eta bestelakoak egin ditzaten. Edozein ekintza bertan aurrera eraman dezakete, tabernaren ezaugarri fisikoek ahalbidetzen duten heinean; izan ere, ez da nahiko genukeen bezain handia... ◀

Ezagutu saitzazu!!!

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Arene azpi, 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

BARRIKA • URDULIZ | Bilboko Burdin Hesia

Defentsa-lerroa berreskuratzeko lanean hasiko dira laster

Lagundu hutsune hau betetzen
Egin zaitez HIRUKAlagun!

IKER RINCON MORENO ►

Bilboko Burdin Hesiaren aztarnak berreskuratzeko eta haien balioa nabarmentzeko indusketa arkeologikoak abiaraziko dituzte laster Barrikan eta Urdulizen, Kurtziamendi eta Santa Marina inguruetan hurrenez hurren. Hala ere, udalerriotan beharrak hasi baino lehen, Gamiz-Fikako lubakiak eta metrailadore-kokaguneak garbitzeari ekin zion joan den azaroaren 13an Iñaki Libanok, Diego Garatek eta Sergio Salazarrek gidatutako aditu talde batek. Datozen bi asteetan jardungo dira bertan lanean; ondoren, Urdulizen eta Barrikan hasiko dituzte beharrak. Urdulizen kasuan, Udalak hainbat langabe kontratatuko ditu defentsa-lerroaren aztarnak garbitzeko; Barrikan, aldiz, Gogora Institutuaren aurrekontuaren zati bat bideratuko du Udalak, lorezaintza-enpresa bateko langileak kontratatatu eta Kurtziamendin dauden elementu biak garbitzeko.

Izan ere, Gogora Institutua da Eusko Jaurlaritzak 2017an martxan ipinitako proiektu horiek koordinatzeko arduraduna. Azaldu dutenez, Burdin Hesia 80 kilometroko defentsa-lerroa zen, 1936 eta 1937 urteen artean 14.000 pertsonak eraiki zuten eta 33 euskal udalerri zeharkatzen zituen. Gaur egun, 25 herri-tan dago horren aztarnaren bat, eta horiek denak babestu eta balioetsi gura dituzte, euskal kulturaren, ondarearen eta gure memoria demokratikoaren parte garrantzitsua delako. Horretarako, erakunde bakoitzak ardura eta zeregin jakin bat izango du.

Batetik, Eusko Jaurlaritzak Burdin Hesiaren aztarnak babestuko ditu, Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren bitartez. Bestetik, elementu horiek sendotzeaz eta zaintzeaz arduratuko dira Arabako eta Bizkaiko foru aldundiak, beren eskumenen barruan. Bestalde, Gogora Institutuaren gidaritzapean, aipatutako udalak «Memoriaren Ibilbideak» osatzen dabiltza, aldundi biaz koordinatuta. «Lanok kontu handiz abiatu dira, eta lehenen-



Burdin Hesiak Uribe Kostako ia udalerri denak zeharkatu zituen 1936an. © IÑAKI LIBANO

Burdin Hesia, Uribe Kostan barrena

Lagundu hutsune hau betetzen
Egin zaitez HIRUKAlagun!

IÑAKI LIBANO
HISTORIALARI BARRIKOZTARRA

Lagundu hutsune hau betetzen
Egin zaitez HIRUKAlagun!

IRATXE URIGUEN
GOGORA INSTITUTUA

go urratsa aipatutako garbiketa eta indusketa lanak dira», azaldu du Gogora Institutuak.

INDUSKETA-LANAK BARRIKAN ETA URDULIZEN. Iñaki Libanok jakinarazi duenez, Uribe Kostako gunek berri bi horiek «potenzial handia» dute. Lubakiak, metrailadore-kokaguneak, gotorlekuak eta aterpeak izateaz gain, irudiak eta grabatuak ere aurkitu dituzte inguruotan. Berbarako, Barrikan egindako lehenengo indusketei esker irudi geometriko berezi batzuk aurkitu dituzte, ustez metrailadoreak instalatzeko erabiltzen zituztenak. Historialariak azaldu duenaren arabera, «orain arte Burdin Hesi osoan sekula ikusi ez diren irudiak dira horiek». Bestalde, Santa Marinaran CNTri gorazarre egiten dieten horma-irudiak ere aurkitu dituzte, baita *Gora Euskadi* eta ANV dioten inskripzioak ere Gamiz-Fikan. «Irudi horiek denak dokumentatu behar ditugu, mota horretako grabatu eta elementu oso gutxi daudelako», azaldu du Libanok. Landa-lan hori dena egiteko hilabete eta erdi izango dute, urtearen akabura arte. ◀

AIXERROTA BHI
IKASTETXEA

DBH: B eta D ereduak + ikasgaiak ingelesez
DBH 1: Natur zientziak (Euskara/English)
DBH 2: Matematika (Euskara/English)
DBH 3: Fisika eta Kimika (Euskara/English)
DBH 4: Matematika eta Musika (Euskara/English)

BATXILLERGOA: D ereduak + ikasgaiak ingelesez
• Zientzia modalitatea
• Giza eta Gizarte zientzietako modalitatea

SAT/ZIG: Zereginak ikasteko gela

euskaraz bizi nahi dut

INFORMAZIO +
Santa Marina Haitza 14
48993 GETXO
944 911 786
www.aixerrota.hezkuntza.net

eko haragia
HARATEGI EKOLOGIKOA

Larrean hazitako animalien haragi ekologikoa. Gure baserrian ekoiztutakoa.

Haragi-produktu artisauak

Orduetgia: Astearte, asteazken, ostiral eta larunbat goizetan eta ostiral arratsaldean

Kasune 46, Algorta
www.ekoharagia.com
Tf: 94 612 15 79



LABetik atera berri

ERIKA BILBAO BARZENA
LABeko Eskumaldeako idazkaria

Heldulekuak

Grabitatea baino ez dago hor kanpoan, dena dago orain erortzeko zorian». Berri Txarrak taldeari ostu dizkiot hitzak. Horrela sentitu naiz denbora luzean lan-baldintzei dagokienez, lantokian ezegonkortasuna baitugu eguneroko ogi eta mehatxu. Gure belaunaldiak argi dauka ez dela erretiratuko hasi zen enpresa berean; lana edukitzea eta behar egitea bihurtu direla beren bizitzen epizentro nagusi; behartuta gaudela, ezarri dizkiguten joko-arauen arabera, datorrena datorrela «onartzero». Ez omen dugu bestelako aukerarik.

«Errazago zaigu munduaren amaiera irudikatzea kapitalismoarena baino» (Mark Fisher). Egun ezagutzen dugun sistema omen da eredu sozioekonomiko bideragarri bakarra. Beste guztiak utopia, kea eta ametsak baino ez dira. Baina nola esan ahal zaio horri guztiari «bideragarri»? Lan egiteko bizi bagara, lanean gaixotu eta hiltzen bagara (jada 64 hildako aurten)!, hori bideragarria al da? Norentzat? Ez guretzat!

Horregatik, ez erortzeko heldulekuak ikustea zaila zaigun honetan, harro sentitzen naiz gurasoen etxe ondoko Loramendi zahar-egoitzaren albotik igarotzean (Goierri Erandio). Duintasunak sentiarazten duen harrotasunaz ari naiz. Bertako langileak greba mugagabea daude: erabaki dute nahikoa dela, euren bizitzari eta osasunari garrantzia emateko unea dela.

Ez dutelako lanean gaixotzen jarraitu nahi. Izan ere, emakumeoi «erreserbatutak» lan-eremuetan (garbiketara, zaintza...), jasanezina den lan-bolumena ateratzeko, inposatzen dizkiguten jardun partzialak onartezinak dira. Ez dute dirurik eskatzen; lan-baldintza duinak exijitzen dituzte, bizi ahal izateko. Loramendiko langileak zutitu eta Sanitas multinazionalaren aurrean plantatu egin dira. Eta bidelagun izango gaituzte!

LORAMENDIKO LAN-GATAZKA | 1a hilabete greba mugagabea

Lagundu hutsune hau betetzen
Egin zaitez HIRUKAlagun!



Arazoa bizi duten langileak hamahiru dira, baina lankide denen sostengua lortu dute. OSKAR GUTIERREZ

Martitzenean hilabete bat beteko da Sanitas taldeak Erandion daukan Loramendi zahar-egoitzako beharginek greba mugagabeari ekin ziotenetik. Garbitzaileen lantaldeari jardunaldi osoa onartzea eskatzen dute.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Noiztik zabilatzate lan-gatazkan? Urriaren 20tik gabiltza 24 orduko greba mugagabea, baina lan-gatazka maiatzean hasi genuen, zahar-egoitzan elkarretaratzeak egiten. Ekai-nean ekin genion lanuzteak egiteari, ordu bi goizean eta beste bi arrastian. Enpresa mugitzen ez zela ikusita, 24 orduko grebari ekin genion urriaren 20an.

Zer eskatzen duzue? Loramendiko langileok hamabost urte daroatzagu egoitzan. Lantalde denek dauzkate % 100eko lanaldiak, solairuko eta sukaldeko garbiketara eta garbitegi-lantaldeek izan ezik. Hamahiru langile gara talde horiek osatzen ditugunok, eta denok ditugu lanaldi partzialak. Lanaldi horiek % 60 eta % 81 bitartekoak dira. Hamar urte daroatzagu aldarrikatzen enpresak apurka-apurka lanaldi partzial horiek egokitu ditzala, lanaldi oso bihurtzeko, gure lanaldiak partzialak izateak kalte egiten digulako gai askotan. Hemen hamabost urte lanean eman ostean, errelebo-kontratu bati edo erretiro bati hel-

Grebako lana

Loramendiko grebalariek Emakunden izan zuten bilera joan den eguaztenean, euren aldarrikapenak azaltzeko. Batzar Nagusietan ere izan ziren. Greba hasi aurretik, Erandioko Udalerako jo zuten, bitartekaritza-lanak egin zitzaizkien. Bertako talde politikoko denek publikoki babestu zituzten Loramendiko beharginak, eta lan-gatazkako alderdiei eskatu zieten negoziatzeko. Leioako Udalean ere eskaera bera egingo dute. Gogorazari dutenez, «% 60ko lanaldi batek behartzen du erretiratutakoan pobre izatera eta Caritaseko ilaretara joan behar izatera. Sektore honetan, soldataren % 60 edo % 75ek ez du bizitzeko ematen, lanean egon arren. Uko egiten diogu txiroak izateari».

tzeko orduan zigortu egingo gaituzte lanaldi partziala izatearren. Daukagun adinagatik, pentsatu dugu orain lortuko dugula edo bestela honek ez duela konponbiderik izango. Halandaze, erabaki dugu hau dela garaia eta eskatzen duguna da hamahiru langileoi lanaldia osatzea % 100era arte.

Hamahiru langileak emakumeak zarete?

Bai, denak. Hamahiruak gara emakumeak eta behin-behinekotasun handiena jasaten duten zahar-egoitzako lantaldeetakoak.

Bata eta bestea lotuta daudela uste duzue?

Lan egiten dihardugun enpresan beharrean egonda, uste dugu baietz, oso lotuta dagoela. Zahar-egoitzan egiten dugun lana oso lotuta dago gure kontratuen lanaldiakaz, eta emakumeak izatea ere bai, argi dago.

Zein da enpresaren jarrera?

Arduragabea, ikaratzaraino. Laster hilabetea beteko dugu 24 orduko greban, garbiketara eta garbitegi-gian. Horrelako egoitza batean garbiketara oinarritzeko da, jatea bezain beharrezkoa. Halandaze, momentu honetan egoitzaren bizi-baldintzak beldurgarriak dira. Enpresak ez digu deitu ere egiten, mahai batean bildu eta konponbidea zein izan daitekeen begiratzeko. Bezero berriak ez onartzeko luxua hartu dute; sendiei esan diete pozik ez badaude, alde egiteko. Horrek beldurtzen gaitu. Aho bete hortz eta izututa gaude. ◀

SOPELA | Horma-irudiengatik epaiketa

Adierazpen-askatasuna auzitan

Lagundu hutsune hau betetzen
Egin zaitez HIRUKAlagun!

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Daborduko urteak dira Sopelan mural politikoen topaketa egiten dutela; maiatzaren 5ean izan zen azkena, *Horma gris isil asko aldarrikapen eta kolorez betez* goiburuaaren pean. Parte hartu zuten kolektiboetako ki-deetako batek adierazi duenez, ordea, «zapora gazia izan zuen egunak». Ertzaintzak bederatzi lagun identifikatu zituen eta mozal legea aplikatu zien. Horren ondorioz, bakoitzak ehun euroko isunari aurre egin behar izan dio.

Baina, isunez gainera, Getxoko Justizia Jauregian epaiketa egingo diete lagun horiei guztiei, urtarilaren 15ean, Sopelako Udalak aurkeztutako salaketa dela eta. «Kontua da eurek egin zuten lehendabiziko gauza horma-irudiak ezabatzea izan zela; eta, euren ustez, identifikatutako bederatziok gara horren erantzule. Horren arabera, guk ordaindu beharko genituzke garbiketa-gastuak. Hala ere, gure abokatua baikorra da eta hark dioenez hori ez da horrela; beraren ustez ez dugu ordaindu behar izango», azaldu du salatutako bizilagunak. Bederatzi

Gaiaren gaineko jarrera kontrajarriak

Lagundu hutsune hau betetzen
Egin zaitez HIRUKAlagun!

SALATUTAKO LAGUNETAKO BAT

Lagundu hutsune hau betetzen
Egin zaitez HIRUKAlagun!

GONTZAL HERMOSILLA
SOPELAKO ALKATEA

salatuei kalte-delitua leporatzen diete, baina dirudienez, Kode Penalean kategoria horretan zerrendatutako delituen artean ez da ageri eurek egindakoa. «Salatu izan bagintuzte fatxada itsusteagatik, pentsatzen dut prozedura beste bat izango zela. Holako salaketa ipini digute gu erantzule egiteko», azaldu du zentsuraren aurkakoak. Udalaren arabera, 2.000 eurotik gorakoa izan zen garbiketa-gastua. Gizarte-lanez ordezkatu ei daitezke holako isunak.

«**ZENTSURA NAGUSI**». Isunak eta epaiketa salatzeke, irailaren 29an, Zentsuraren Aurkako Egunean egindako muralengatik Sopelako Udaltzaingoak beste gazte bat identifikatu zutela jakinarazi dute antolatzaileek. Zitazio judiziala ere heldu ei zaio. Hala ere, oraindino ez dakite zer leporatzen dioten. Bitartean, udal-taldeakaz berba egin ostean, azaroko udal-batzarrean mozioa aurkeztuko dute maiatzaren 5ean identifikatutako bederatzi lagunak. Osoko bilkura hasi aurretik elkarretaratzea egingo dute udaletxe aurrean.

UDALAK «GARBI» DAUKA. Sopelako alkate Gontzal Hermosillak adierazitakoaren arabera, «pintaketak udal-eremuan egin ziren ezelako baimen barik. Pintaketa horien garbiketak kostu bat dauka, eta Ertzaintzak horien egileak identifikatu zituen. Beraz, ez dauka zentzurik sopoloztar denek garbiketa-lan horien kostua euren gain hartzeak; arduradunei dagokie hori». Agintariak gaineratu duenez, «pintaketen edukiez ez dugu irizirik emango, Ertzaintzaren esku dago hori». ◀

ARTOLOZAGA

Tailerrak

MEKANIKA · KARROZERIA · ELEKTRONIKA

NEGUAN, IZAN ZURE KOTXEA PREST:

Automobileko
bateria errebisatu
eta beharrezkoa bada
alda ezazu

Olio, hozgarri, haizetako
garbitzaile eta **balaztako**
likidoen mailak ikusi

Haizetako-garbigailuak
aztertu

946 763 814 • talleresartolozaga.com
Gatzarriñe Kalea, 42 SOPELA

Pneumatikoak aztertu.
Komeni da neguko
pneumatikoak
edo elur-kateak eroatea

Argi- eta balazta-
sistemak aztertu

Botika-kutxa egokia
eta **manta** eroan





Zu zara giltza

Ez utzi biharko;

egin zaitez **HIRUKA**lagun

Egoera ekonomikoak itolarrian utzi du HIRUKAren proiektua; aurrera egiteko, ezinbestekoa da zure laguntza. Urtea amaitu baino lehen 333 HIRUKAlagun berri egitea da erronka. Utzi bazterrean axolagabekeria, eta babestu euskarazko prentsa. Urtean 35 euro baino ez dira!

944 911 337
hirukakoop@hiruka.eus

HIRUKAlagun
egitea, klik batera
QR hau eskaneatu eta
egin zaitez HIRUKAlagun
minutu batean.



hiruka

IRATI ELORRIETA AGIRRE | *Neguko argiak* eleberriaren egilea

«Bizi izan ditudanak ere eleberrian daude»

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Hamar urteren ostean, bigarren liburua plazaratu du Irati Elorrieta Agirre (Algorta, 1979) idazleak, Pamie-la argitaletxearen eskutik: *Neguko argiak* eleberria. Adiskidetasun-harremanak dira lan berriaren ardatzetako bat, eta Berlin haren kokapen nagusia. Izan ere, algotar egileak urte mordoa daroa han bizitzen. Edozelan, urtean bizpahiru bider etortzen da herrira. Gabonetan ere gure artean izango dugu.

Asko kostatu zaizu liburu hau amaitzea? *Burbuilak* (Alberdania, 2008) nire lehenengo lana argitaratu zenerako hasita nengo liburu hau idazten, baina ordutik hona ama izan naiz birritan eta lanean ibili naiz. Horrek oso tarte txikiak utzi dizkit idazteko. Oso erraza da hamar urte igaro direla esatea. Hala ere, horrek ez du esan gura denbora guztia eman dudala horretan. Guztiz kontrakoa: urte askotan, nobela izanda dedikazio handiagoa eskatzen zuenez, nire tarte txiki horietan ezin izan dut askorik aurreratu.

Zeintzuk dira *Neguko argiak* eleberriaren ardatz nagusiak? Nik esango nuke nobela korala dela: hainbat pertsonaiaren istorioak kontatu ditut. Euren artean dituzten adiskidetasun-harreak aztertu ditut gehienbat. Hala ere, pertsonaia-multzo horretan emakume bi dira garrantzitsuenak: Añes eta Marta. Lehenengoa uribekostarra da, eta bigarrenaren jaioterria Iruñea da. Parisen elkar ezagutu arren, Berlinera doazenean egiten duten bizitza da liburuaren muina.

***Burbuilak* narrazio-liburuaren pertsonaiak alderatuta, zer berezitasun daukate *Neguko argiak* eleberrikoek?** Esango nuke, helduagoak izateagatik, gazteagoak garenean daukagun amets eta ilusio horiek ez dituztela. *Burbuilak* liburuko

Argazki batek egon behar zuen hemen, baina HIRUKAren egoera larria dela eta, ezin dugu gure lana behar bezala egin.

Hau berriro jazo ez dadin zure laguntza behar dugu.

Egin zaitez HIRUKAlagun!



Paris, Uribe Kosta, Iruñea eta, batez ere, Berlin agertzen dira eleberrian. © FALK WEISS

Berlin

«Aspalditik bizi naiz Berlinen; nik ezagutzen dudun hiriaren zati edo paisaia bat deskribatzen dut nobela berrian»

Irudiak

«Buruan dauzkadan irudiak askotan izaten dira zerbaiterako abiapuntua. Hortik tiraka hasten naiz istorioa asmatzen»

Hurrengo lana

«Desio bat eskatu ahal badut, espero dut nire hurrengo liburua argitaratu ahal izateko beste hamar urte itxaron behar ez izatea»

burbuila horiek lehertu egin dira. *Neguko argiak* liburuko pertsonaiek, neurri batean, alde batera utzi dituzte gaztaroko amets eta ilusio horiek, eta bizirauteko ahaleginean dabilta, aurrera ateratzeko.

Hirugarren protagonista izan daitekeen bat dago, hildako bat, Esteban. Zergatik? Añesen sukaldera sartu eta eten barrik beragaz berbetan agertzen da Esteban. Galdu arren, beti go-goan daukagun pertsona bat izaten da. Gainera, jendeari esan diodanean hildako bat dagoela nobelan, konturatu naiz jende askok duela bere hildakoa: konturatu barik horri gauzak kontatzen hasten dira eta elkarregaz topo egingo dutela uste dute. Jendeak badauzka holako bizipenak.

Zuk bizi izandakoak eragina izan du nobelan? Aspalditik bizi naiz Berlinen; nik ezagutzen dudun hiriaren zati edo paisaia bat deskribatzen dut nobelan. Bizi izan ditudan eta ezagutu ditudan pertsonak zelanbait hor daude.

Irudiak indar handia daukate eleberrian? Idaztean, buruan dauzkadan irudiak askotan izaten dira zerbaiterako abiapuntua. Hortik tiraka hasten naiz istorioa asmatzen.

Beste hamar urte itxaron beharko dugu zure beste liburu bat irakurri ahal izateko? Espero dut horrela ez izatea. Desio bat eskatu ahal badut, espero dut hurrengo liburua amaitzeko hurrenbeste urte behar ez izatea. ◀



Lagundu hutsune hau betetzen

Egin zaitez HIRUKA lagun!

2019rako Egutegi Pertsonalizatuak

Zure argazkiekin pertsonalizatu!



Villa de Plentzia, 6 · 48930 AREETA
www.cianoplan.es · 902 103 763



Eredu berria

HIRUKAren berbaldi irekiak

Lagundu hutsune hau betetzen
Egin zaitez HIRUKA lagun!

Antzerkia

Azaroak 15, eguna
Euskaraz gozatzeko hamaika kontu ipuin-saioa

18:00 | Algortako kultur etxea | Getxo
Sorgina Txirulinagaz. 3 eta 8 urte arteko umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

Azaroak 17, zapatua
Miss Karaoke helduentzako antzezlan
20:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Metrokoadroka Sormen Laborategiagaz. Euskaraz. Sarrera: 6 euro.

Azaroak 21, eguaztena
Saxofonisten istorioak ipuin-kontaketa musikatua
18:00 | Astrabuduko liburutegia | Erandio
Ameli Ipuinenjostune ipuin-kontalariagaz eta Irati Celestino musikariagaz. 5 urtetik gorakoentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

Berbaldiak

Azaroak 15, eguna
Tokiko kazetaritzaren nondik norakoak mahai-ingurua
11:00 | EHUko Kazetaritza Fakultatea | Leioa
HIRUKA antolatutako berbaldi irekien barruan. Informazio gehiago HIRUKAren app-an.

ERANDIO | Talo-solasaldia
Erandioko Txoko Feministaren laguntzari esker, saio berezia antolatu du HIRUKA Uribe Kostako komunikazio-taldeak, udagoieneko jardunaldi-sortaren barruan. Azaroaren 22an, egunean, sexuari, feminismoari eta identitateari buruz berba egingo dute Saioa Hernandez psikologo eta sexologoak zein Bea Sever Chrysalis elkarteak kideak, parte-hartzaile denek taloak prestatzen dituzten bitartean. Hitzordua arrastiko 19:00etan ipini dute, Gautxori talde kulturalaren egoitzan (San Jeronimo, 22). Sarrera doakoa izango da.

Bertsolaritza

Azaroak 15, eguna
HIRUKAren aldeko bertso-poteoa
20:00 | Ajuria taberna (Algorta) | Getxo
ALBE Algortako Bertsolari Eskolaren laguntzaz. Ibilbidea: Ajuria (hasiera), Salem, Unai, Aterki eta Kasino plaza (amaiera).

Erakusketak

Azaroaren 30era arte
Getxo-Plentzia trenbide-linearen 125. urteurrena
Romo Kultur Etxea | Getxo
Argazki-erakusketa. Sarrera, doan.

Topaketak

Azaroak 17, zapatua
Erandioko 2. Topaketa Feminista
11:00 | Altzagako azoka zaharra | Erandio
Berbaldiak, tailerrak, bazkaria eta kluna egongo dira. Sarrera, doan.

Zinema

Azaroak 18, domeka
Igelen erresuma, umeentzat
18:00 | Berango Antzokia | Berango
Euskaraz. Sarrera, doan.

Euskaraldia

Barrika

Azaroak 22, eguna
19:00 Euskaraldia aurkezteko ekitaldia, udaletxean.

Erandio

Azaroak 16, barikua
08:00-14:00 Txapen banaketa, Euskara Zerbitzuan, Altzagan.

18:00-20:00 Txapen banaketa, Erandiogoikoko kulturgunean.

Azaroaren 19tik 23ra arte
Txapen banaketa. Informazio gehiago HIRUKAren app-an.

Getxo

Azaroak 16, barikua
18:30 Irribiziei omenaldia, Romo Kultur Etxean. Izen-ematea: euskaraldiagetxon@gmail.com

Leioa

Azaroak 16, barikua
18:30-20:30 Txapak banatzeko jaia, Sakoneta kiroldegian.

Azaroak 17, zapatua
11:00-12:00 Ahobizi eta belarriprest izango direnentzako ikastaroa, Lamia AEK euskaltegian. Izen-ematea: leioaztarrak@gmail.com

Azaroaren 19tik aurrera
09:00-12:00 eta 15:00-20:00 Txapen banaketa, lanegunetan, Kultur Leioan.

Lemoiz

Azaroak 18, domeka
12:00-14:00 Txapen banaketa, Armintzako portuan.

Plentzia

Azaroak 17, zapatua
12:30-14:00 Txapen banaketa informazio-gunea, udaletxean.

Urduliz

Azaroak 18, domeka
12:00 Euskaraldia aurkezteko ekitaldia, Antsonekoa plazan.

Zinema «Printze txikia»

Jatorrizko izenburua: Le petit prince
Zuzendaria: Mark Osborne
Azaroak 18 - 18:00
Azebarri Kultur Elkarte. Algorta.

Lagundu hutsune hau betetzen
Egin zaitez HIRUKA lagun!

IZASKUN RODRIGUEZ ►

Antoine de Saint-Exupéry idazle frantsesak 1943an argitaratutako *Printze txikia* maisulana oinarri hartuta, bihotza biguntzen duen animaziozko film zoragarria gauzatu dute Mark Osborne zinegileak eta bere lantaldeak. Eleberriaren 140 milioi ale saldu badira, Frantzia ekoiztutako filmak 100 milioi dolar bildu ditu, ia aurrekontuaren bikoitza. Eleberria 250 hizkuntzatara itzuli da; filma, berriz, euskaraz entzuteko aukera paregabea daukagu, Jeff Bridges eta Rachel Adamsen ahotsak entzun ez arren. Printzea eleberriaren protagonista da, baina filmean neskatxa batek du leku nagusia. Bere amak antolatu dion bizimodu zorrotza aldatzen joango da, auzokide edadetu batek eta printze txikiaren abenturek bere izaeran eragina duten adinean.

Ume eta helduen gozamenarako 106 minutu dira, animazioak eta gidoiak daukaten erritmoagatik, baina batez ere seme-alabakaz batera hainbat gaitaz hausnarketa egiteko aukera ezin hobea eskaintzen delako: maite dituzunen nahiak entzutearen garrantzia, sormena bultzatzearena, galerei zelan aurre egin... Eta sakonean, zergatik galtzen da adinagaz amets egiteko grina?

AINGARA

BORDATUAK EUSKAL JANTZIAK

Aurrezki Kutxa, 18
48930 Erromo · GETXO | 944 038 953
bordadosaingara.com

Ebaki bonu hau eta %10eko deskontua izango duzu gure produktuetan*

*bordatuak eskaintzatik kanpo
*bonua ebaki eta dendan aurkeztu

Futboletik arraunera jauzia emang

Lagundu hutsune hau betetzen
Egin zaitez HIRUKAlagun!

TESTUA ETA ARGAZKIA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Erandion Kirola Ere Euskaraz egitasmoaren fase berria ezagutzera eman zuten, joan den astean. Aurkezpenean izan ziren Joseba Goikouria alkatea, Egokiñe Angulo Euskara zinegotzia, Koikili Lertxundi Athleticeko jokalaria ohi eta EuSport enpresako arduraduna, Euskara Zerbitzuko kideak eta klubetako ordezkariak.

Aurten laugarren urtea da euskarak, kirolak eta Erandiok denboraldi berriari ekin diotena, eskua elkarri emanda. Baina aurreko ikasturteetan Futbola Oinarritik Euskaraz proiektua izan zenak gaur egun Kirola Oinarritik Euskaraz izena hartu du, eta berdin segituko du Erandion Kirola Ere Euskaraz ekimenaren barnean.

Antolatzaileek futboletik asago dabilen ur-kirol bat, arrauna, eta Lutzana auzoa uztartuko dituzte azaroaren amaieran, Lutzana Arraun Elkartearen parte-hartzeari esker. Klub hori batuko zaio orain arte sortutako familia txikiari: euren kideen artean euskara sustatzen ibili dira Erandio Kirol Elkartea, Astrabuduako futbol-taldea, Erandioko Udal Euskara Zerbitzua eta EuSport enpresa. Eta iaz, berdintasun irizpidea ezarrita, sartu zen emakumezkoen lehenengo kluba: Erandioko Betiko Neskak astrabuduarra.

Nieves Calzada Lutzanako Arraun Elkarteko zuzendaritzako kideak adierazi duenez, «betidanik eman diogu garrantzia euskararen kontuari, baina orain arte ez geneukan ikusgarri ipintzerik. *Koi*-ren enpresak bitartekoak eskaini zizkigun eta bete-betean sartzeari erabaki genuen». Daborduko, klubak aurrekusi du hainbat zailtasun izango duela: «Gehienbat komunikazioak gazteleraz egiten ditugu, erosotasunagatik. Neska-mutil denek badakite euskaraz egiten eta entrenatzaileek eta zuzendaritzako kideen gehiengoak ere bai; ea honen bidez sar dezakegu euskara komunikazio esparru horretan».

Lutzanakoen estreinaldia berezia izango da: azaroaren 24an, martxoaren 8ko bigarren estropada antolatuko dute, «kirolean emakumei ikusgarritasuna emateko, ahalegina berdina izanda ere, sariak ez direlako berdinak», Nerea Basterretxea klubeko presidenteordeak iragarri zuenez. Estropada-



«Kirolean emakumei ikusgarritasuna eman gura diegu, ahalegin berdineaz sariak ez direlako berdinak»

NEREA BASTERRETXEA ATXA
LUTXANA A. E.-KO PRESIDENTEORDEA



«Neska-mutilak fokuratuta, etorkizun euskaldunagoa bultzatzea dezake euskaraz lan egiteak»

EGOKIÑE ANGULO GOTI
ERANDIOKO UDAL EUSKARA ZINEGOTZIA



«Neska-mutil denek badakite euskaraz, entrenatzaileek ere bai, baina komunikazioak gazteleraz egiten ditugu»

NIEVES CALZADA GUTIERREZ
LUTXANA A. E.-KO ZUZENDARITZAKO KIDEA



gaz batera, herri-bazkaria izango da. Ekimenaren beste helburu bat da arrauna ezagutaraztea.

Egokiñe Angulo Euskara zinegotziak aurkezpenean gogoraztu zuenez, egitasmoa 350 umegaz, kirol bakarragaz (futbola) eta klub bigaz jaio zen: Erandio eta Astrabuduako. Daborduko lau kirol-elkartek parte hartzen dute, eta gero eta gehiago hainbat kirolelakoak izango dira, «gura duten udalerriko talde denetara» heldu arte, zinegotziaren arabera. Orain arte jasotako emaitzak oso positibotzat jo dituzte. Umeakaz euskara lantzeari «garrantzi handia» ematen dio Udalak, «neska-mutilak fokuratuta, etorkizun euskaldunagoa bultzatzea dezakeelako».

Urtero hitzarmenak sinatu dituzte kirol-klubakaz. Besteak beste, horren bidez bideratu dira lanak klub bakoitzaren webgunea eta sare sozialak elebidunak izateko, entrenatzaile



BETIKO
IKASTOLA

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84 (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.



o du euskarak kirol-elkarteetan



Lutxanako arraun-elkarteko oinarri-kirolean 56 lagun dabilta. Dena den, klub osoak hartu du Erandion Kirola Ere Euskaraz egitasmoarekiko konpromisoa.

euskaldunen hautaketa egiteko, gurasoei bidaltzen zaizkien oharak eta mezuak elebitan izateko, «partiduetan, nahiz eta esatariek euskaraz ez jakin, euskarazko esaldiak sartzeko eta norgehiagokak euskalduntzeko», eta abar. Angulok goraipatu egin zuen klubaren «borondate oso ona», baliagarria izan dena zailtasun denak gainditu eta aurrerapausoak emateko. Ekimena zabaltzeko Lutxana aukeratu zuten, neska-mutil kopuru handia duelako, euren diziplina euskal kirolean sartzen delako eta elkarteak herriarekiko inplikazio handia duelako.

Koikili Lertxundik adierazi zuenez, euskararen presentzia areagotzea bilatzen du erronkak: «Poztekoa da futboletik kanpo ere kirol-esparru horietara heltzea eta eurek gura izatea euskaraz sustatzearen helburuagatik borrokatu». Arraunaz aparte, Lertxundik espero du etorkizunean saskibaloia barneratzea.



Lagundu hutsune hau betetzen
**Egin zaitez
HIRUKA lagun!**

KOIKILI LERTXUNDI DEL CAMPO
EUSPORT ENPRESAKO ARDURADUNA

Kualitatiboki garrantzi handia eman zion futbola ez diren kirol-diziplinak egitasmoan barneratzeari. Ildo horretan, goraipatu zuen azken denboraldian Erandioko Betiko Neskak egin duen ekarpena, udalerrian duen proiektzioa eta emakumeen presentzia ziurtatzeari eskaintzen dion garrantzia.

Metodologian hainbat moldaketa egingo dituzte aurtan, Athleticen jokalariei ohiak iragarri zuenez, beti ere euskaraz kirol-elkarteen egunerokoan sustatzeko. Hala, indar berezia emango diete kirol-elkarteek antolatzen dituzten partiduei, estropadei, aurkezpenei, campusei, teknifikazio-saioei eta abarrei. Ekintza horietan «Baietz lortu kirolean ere euskaraz olgatzeko» sentsibilizazio-jolasa martxan ipiniko dute, hizkuntza ohituretan eragiteko asmoz, Euskaraldiaren ahobizi eta belarriprest rola hartuta, identifikazio propio bategaz. ◀

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

On-line denda

Bio Zelai

www.biozelai.com

Elikagai ekologikoak

Ekizleak eta banatzaileak

Etxez etxeko zerbitzua

info@biozelai.com | T: 685.798.567 | GATIKA (Bizkaia)

UNIBERTSITATEA | Martxoaren 8ko greba feminista

Ikasle biri eraso egin zien irakaslea zigortuko du EHUK

EHUK lana eta soldata kenduko dizkio, hilabete batez, joan den martxoaren 8an ikasle bi makilaz jo zituen Medikuntza Fakultateko irakasleari. Eraso jasandako emakumezko biak greba feministaren mobilizazioetan parte hartzen zebiltzan. Gertakariaren ostean, Leioako Ikasle Feministak taldeak salatu zuen zigortutako irakaslea oldartu egin zitzaizela eta, hainbat irain egin ostean, eurretako bi makilaz jo zituela. Ez zuten salaketarik ipini epaitegietan, baina EHUKo Errektoretzara jo zuten, kexatzeko.

Argazki batek egon behar zuen hemen,
baina HIRUKAren egoera larria dela eta,
ezin dugu gure lana behar bezala egin.

Hau berriro jazo ez dadin zure laguntza behar dugu.

Egin zaitez HIRUKAlagun!



PLENTZIA | Alkateari elkartasuna

Independenteeek David Crestelo alkatearen kontra ipinitako salaketaren aurrean, elkartasuna adierazteko agerraldia egingo dute domekan.

Lagundu hutsune hau betetzen

Egin zaitez HIRUKAlagun!

Lagundu hutsune hau betetzen

Egin zaitez HIRUKAlagun!

BERANGO | Berriztatzearen 1. fasea

Merkatarien protesten artean, Sabino Arana kalea goraipatu zuten azaroaren 9an, baita Simon Otxandategi Dantza Taldea plazatxo inauguratu ere.

hiruka app berria

Uribe Kostako informazio guztia eta agendarik osoena.

Agenda

Albisteak

Euskaraldia

Argazkiak eta bideo albumak

Geolokalizazioa

SOS botoia



Deskargatu!



BaPiruke Gabonetako koloniak

EGUNAK:

Abenduak 26, 27 eta 28 & urtarrilak 2, 3 eta 4.

NORI ZUZENDUA:

5-12 urte bitarteko umeentzat

ORDUTEGIA:

9:00etatik 13:30era. Irteera egunetan (27an eta 3an) 17:00ak arte.

NON:

J.B. Zabala (Algorta) eta Romoko eskoletan

PREZIOA:

Bazkideek 45 euro

Bazkide ez direnek 60 euro

Getxon gutxieneko errenta jasotzen dutenek 20 euro (Aldundiako ziurtagiria + NANaren fotokopia)

IZENA EMATEKO EPEA:

Bazkideek azaroak 19 + 20; bazkide ez direnak azaroak 21 + 22.

Egunero 10:00 - 13:30; 19an eta 21ean 16:30 - 18:00.

Antolatzailea



Babesleak



Informazio gehiago:
tambien en castellano

www.bizarralepoan.eus

info@bizarralepoan.eus

94.491.03.87

Martikoa 16, 2 - 4 (Algorta)

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena
Argazkiak: Oskar Gutierrez
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino
Kolaboratzaileak: Asier Barruetabeña, Alazne Palacios, Izaskun Rodriguez, Kerman Santiago
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKA lagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

**Getxoko Kultur Etxearen
ekimenez, Nazioarteko
Trikritixa Jaialdirako
sarrera bikoitzak
zozkatuko ditugu**

Azaroaren 24an (zapatua) egingo den
jaialdiaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu
gura baduzu, azaroaren 20a (martitzena)
baino lehenago bidali erantzuna, zure
izen-deiturak eta harremanetarako bidea
hona: administrazioa@hiruka.eus
edo 944 911 337.



Azaroko saria

Lagundu hutsune
hau betetzen

**Egin zaitez
HIRUKA lagun!**

**Bizkaiko Bertsolaritza Txapelketako
finalera joateko sarrera bikoitzak**

**Bizkaiko Bertsozale Elkarteari esker zozkatuko
ditugu HIRUKA lagun eta bazkideen artean**

Zozketan parte hartzeko, bidali azaroaren 30a (barikua) baino lehenago
zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona:
administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

**Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako
euskarazko komunikazio-taldearen
bultzatzailea eta partaidea izango zara.**

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

7		9						
		2	4	3		1		
	3		8	6				
			6		2		9	4
4								
	9	1			3	6		5
					4			3
		6	1	7		4		

						4		
	9				6	5		
		5			4			8
			1					
		6			8			2
8		4		3			1	
		1		6				
	8			5		3	2	
6				9				4

Soluzioak

Gogoan har egizu
1etik 9ra arteko
zenbaki denek
agertu behar
dutela zutabe,
ilara eta azpilauki
bakoitzean.

7	2	1	8	6	8	2	5	9
9	2	8	1	5	4	7	8	6
6	5	8	7	9	2	1	4	3
5	1	7	6	8	9	4	2	3
2	4	6	8	7	5	9	3	1
8	9	2	4	1	6	7	5	
8	6	2	4	1	8	5	9	7
1	8	5	9	2	7	8	6	4
4	7	6	5	8	9	3	1	2

6	2	7	8	7	1	9	5	3
8	1	7	9	5	8	4	2	6
8	9	5	4	6	2	7	1	8
5	8	9	8	4	7	1	6	2
1	7	2	5	8	6	3	9	4
4	6	3	2	1	9	8	7	5
2	4	6	7	9	8	5	3	1
7	5	1	6	3	4	2	8	9
9	8	1	2	5	6	4	7	3

Hitza emanda

Naturala

Zumaiako flyshana
ez dogu makala,
azkeneko txoria
dron artifiziala...
Satelite kamerak
anpara gaitzala,
gaur egun jogurta be
ez da naturala!



**JAGOBA
PEREDA
TXOPITEA**
Getxo



Musikariak **Erasoka**

«Beti mantendu gura izan ditugu hasierako taldekideak»



TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO ARGAZKIA: OSKAR GUTIERREZ ►

San Nikolas plazako frontoiaren atzeko aldean laten artean orduak ematen dituzten kalekumeak dira Erasokako ki-deak, boskote honezkero ez hain gaztea. Nerabezaro hasieran martxan ipini zuten epe luzeko proiektua 2018ra heldu da, hamar urte beteta eta herriko zenbait talde bidean utzita.

Hainbat belaunalditan jazo den bezala, zuek ere gaztetan talde bat sortzeko grina eduki zenuten. Oholtza gainean urteak eman dituzuen honetan, zer daukazue esateko bizi izandakoaz? Ez dakigu zer esan, beharbada gure guraso edo familiek irakurri egin-go dute hau... Orokorrean esperientzia izugarria izan da, lagun berri asko, aipatzea merezi ez duten beste hainbat ergel, mozko-rrak, kontu arraro eta zoroak, liskarrak, eztabaidak, amaitu ezi-nezko gauak...

Zuen ibilbidean eten luzetxo bat ere egin zenuten. Zer dela eta? Beti izan dugu helburu talde-egitura eta taldekideak mantentzea, 2008an hasi ginenetik, baina 2012. urte amaieran, gure bigarren lan luzea izango zen *Plastic Mask Assassin* kaleratu genuen urtean bertan, Asierrek kanpora joan behar izan zuen. Pare bat urte eman genuen gainerakook ahal bezala konponduz, kontzertu batzuk hirurok emanez, beste batzuk Asierregaz baina entsegue-tarako denbora barik... Azkenean geldialdia egiteko ordua heldu zela erabaki genuen.



Pausoak Hamar

Sound of Sirens estudioa, 2018

Boskote algortarrak aurreko lanetan baino doinu bortitzagoak dakartza. Aipamen berezia egin behar zaion azkenengo honetan lortu duten soinu bereziari, taldearen potentzia zein profesionaltasuna argi usten duena. Diskoa CD eta binilo formatuetan ateratu dute, eta horiekaz batera bideoklipa ere argitaratu dute.

Skinhead estetikagaz lotutako taldea zarete. Zergatik? Gehienbat musikak erakarri gintuen. Oinarri eta zutabe izanik, gustuko duzun musikariaren estetika erakartzen zaitu, eta apurka kontzertuetara hurbiltzen hasten zara, bertan ibiltzen den jendearen estetika imitatu nahia etortzen da...

Disko berria dakarzue eskuetan, eta esan beharrekoa da soinu ikaragarri ona daukala. Non grabatu duzue, eta zelako berrikuntzak dakartza? Iruñeko Sound of Sirens estudioan grabatu dugu, Julen Urzaiz teknikariagaz; asko eskertzen diogu egindako lana. Disko honetan geure-geurea den soinua entzun dezakegu, urteak aurrera joan ahala heldutakoa. Oi! bortitza, metal, hardcore eta punkaren ezaugarriak antzeman daitezke abestietan. Hitzetaz dagokienaz, euskaraz, ingelesez zein gazteleraz, injustizia sozialez, gustatzen edo arrotz sentiarazten gaituzten gaiez eta gure herrialdearekiko maitasunaz dihardute. Eta gure lurraldea nabarmendu dugu, Bizkaiko kostaldea.

Disko berria aurkeztzen hastear egongo zaretela suposatzen dut. Non egingo dituzue lehenengo emanaldiak, eta zer ikusi ahal dugu zuzeneko horietara joaten garenok? Hainbat gauza izan dira tarteko asko atzeratu behar izan dugu aurkezpena, azaroaren 24ra (Berangoko Cue aretoan), baina apurka-apurka eguna hurbilduz doa, eta gauzak ondo egiteko grinak gero eta gehiago itotzen gaitu. Gau horretako oroitzapen izugarriak edukitzea da espero dugun gauza bakarra. ◀